

GABONAK 2002. San Petersburgoko Mariinsky Kirov Opera Konpainia Bilbon izango da

Bergarako Orfeoiak 'Oliver!' musika emonaldia eskeiniko dau urtarrilean

Miriam Diaz Arokak Cruela de Vil papera antzeztuko dau 101 Dalmatar musika emonaldian

Ainhoa Güemes |

Bizkaiko Foru Aldundiak Gabonak 2002ko programearen aurkezpena egin eban atzo, Bilbon. Ane Madariaga Kultura Saileko diputatuak azpimarratu eban, Euskalduna jauregian eskainiko diren emonaldiak bai nagusiei bai umeei zuzenduta dagoz, eta «kalidade handikoak izango dira».

Umeei zuzenduta musika emonaldi ezberdin bi dagoz, Gabonak 2002ko programearen barruan. Bata, *Oliver!* izeneko, Charles Dickensen *Oliver Twist* klasikoan oinarritzen da, eta nazinoartekoa izanik euskaratzen dan lehen musikala da. Izan be, *Oliver!* emonaldia Bergarako Orfeoiko kideek euskaraz kantau eta antzeztuko dabe. Hainbat gorabehera izan ondoren, izatez familia aberats batekoa dala jakingo dauen Oliver umezurtz txiroaren abenturak umeei biziaraziko deusiez.

Oliver! musika emonaldia 2003ko urtarrilaren 2tik 5era bitartean izango da, Euskalduna jauregiko A-1 aretoan. Guztira 3.000 sarrera jarriko dira salgai, eta bakotxagaitik 6 euro ordaindu beharko da. Euskarazko musika emonaldi hori behin baino ez dabe eskaini; eszenatokira eraman izan eben lehenengo aldia 1999. urtekoa izan zan, Gasteizko Nazinoarteko Antzerki Jaialdian, Bergarako Orfeoiko 75. urteurrena zala-eta egin eben ospakizunean, hain zuzen.

Bestalde, abenduaren 17an, 28an, eta 30ean, Luis Alvarezen Inchico konpainiak prestatutako *101 Dalmatar*. Protagonista Miriam Diaz Aroca aktorea da. Euskalduna jauregiko entzutegian izango da antzezlan. Izan be, 40tik gora aktore eta dantzarik hartuko dabe parte, baita benetako 20 bat txakurrek be. Miriam Diaz Arokak Cruela de Vil gaizkin ospetsuaren papera antzeztu egingo dau.

Lau egun horreetan bi emonaldi elkarren jarraian eskeiniko ditue, arratsaldeko 16:00etan eta 19:00etan, hain zuzen. Guztira 16.000 sarrera jarriko dira salgai; sarrerarik garestiena 13 euro balio izango dau.

Bi opera lan nagusientzat

Adineko jendeak aukerea izango dau Modest Mussorgskyren *Boris Godunov* eta Alexander

Borodinen *Igor Printzea* opera lanak ikusteko. Opera horiek munduko ospetsuenetarikoa dan San Petersburgoko Mariinsky-Kirov Antzokiko Opera Konpainiak antzeztuko ditu; zuzendaria Valery Gergiev da.

Boris Godunov operearen abenduaren 9an eta 20an izango da,

EUSKARAZKO BERTSIOA

Bergarako Orfeoiak eskeiniko dauen Oliver! musikala da euskaratzen dan lehen nazinoarteko musika emonaldia

Bilbon egingo daben bertsioan Paata Burchuladze baxuak eta Milanoko Scala antzokiak parte hartuko dabe. Aurrekoa baino tankera klasikoagoa daukan *Igor Printzea* operearen abenduaren 21ean eta 22an emango dabe, eta Mijail Fokin koreografoaren *polonesa* dantza ospetsuak eskainiko ditue.



Aritz Oteiza, Oliver, eta Gorka Maiztegi, tunantea, Bergarako Orfeoiko kide gazteak, aurkezpenean

BERGARAKO ORFEOIA

Orfeoiko gazte harrobia

1992tik hona Bergarako Orfeoiak gazte harrobia baeukan be, 2002an erabarritze prozezu bati ekin deutso, errepertorioagaz batera izena be aldatuz. Horrela sortu barri da Gazte Bergarako Orfeoia GABERO. Gazteek osatzen daben orfeoiak bermatuko dau, batetik, abesbatzaeren etorkizuna, eta, bestetik, abesbatzaeren barrikuntza. Gaur egun, David Arzuzak tolosarra da Bergarako Orfeoiko zuzendari titularra, baita Gazte Bergarako Orfeoikoa be.

1999. urtean, Orfeoia 75. urteurrenaren ekitaldien barruan, Charles Dickensen *Oliver Twist* eleberrian oinarritutako *Oliver!* musika emonaldia estreinau eben. Aurton, Gabonak programearen barruan, Orfeoiko kide gazteek aukerea izango dabe musika emonaldi hori berriro aurkezteko, Euskalduna jauregian.

Ez da erraza Bergarako Orfeoia sorrera data zehaztea, ez dago-eta sortu zaneke inongo agiririk. Dana dala, XIX. mendeko bukaeratik aurrera badagoz orfeoi edo abesbatza baten aintzenak; talde hori gizonezkoa zan eta parrokietako abesbatzekin eukan lotura.

Halandaze, Bergarako Orfeoiak 1923. urtea oinarritzat hartu dau, alde batetik, urte horretan Santanderren antolatutako Orfeoi Lehiaketa batean Coral Vergaresa izenekoak hartu ebalako parte; eta bestetik, 1923koak baitira Coral Vergaresa-ri buruzko egunkarietako lehenengo aintzenak be.

1993az geroztik Bergarako Orfeoiko errepertorioak obra klasikoak, erromantikoak zein garaikideak hartzen ditu barne, talde instrumental txikien edota kamara orkestren laguntzaz. Izan be, Orfeoiko kideek musika kalidaderik handiena lortu gura dabe, ahots teknika ahalik eta gehien hobetuz.

LAGURAEAN

BARAKALDO

Autodefentsa tailerra emongo dau Argitanek zapatuan eta domekan

Emakumeendako autodefentsa tailerra gertau dau Argitan Emakumeendako Aholku Etxeak. Datorren zapatuan eta domekan egingo dabe, Barakaldoko Beurko institutuko gimnasioan. Zementiaren 25ean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna da, eta hori dala eta antolatu dabe ikastaroa. Izena emoteko telefono zenbaki bi dagoz: 94 478 21 02 eta 652 76 22 32.

KULTUREA

Ipuin eta Komiki Erotikoen II. Lehiaketea egingo dau Sorgintxulok

Ipuin eta Komiki Erotikoen II. Lehiaketea antolatu dau Bilboko Santutxu auzuneko Sorgintxulo gaztetxeak. Eta lanak aurkezteko epea zabalik dago. Zementiaren 30ean bertan egingo daben Sexu Gauean esango dabe zeintzuk izan diran lan sariatuak. Eta ipuinetako pasarteetako batzuk irakurriko ditue, besteak beste.

MUSKIZ

Hiru eguneko bertsolaritza ikastaroa egingo dabe hilean

Hiru eguneko bertsolaritza ikastaroa gertau dau Muskizko Udaleko Euskera Batzordeak. Gaur hasiko dabe ikastaroa eta egunean amaitu. Udal Euskaltegia eta AEK-ko egoitzan egingo dabe. Xabier Amurizaren bideo bat emongo dabe. Eta Iparragirre, Etxahun eta bertsolari ezagunen ganeko zenbait kontu ezagutzeko aukerea eskainiko dabe.

BILBO

Poloniako jai nazionala ospatuko dabe piano kontzertu batez

Poloniako jai nazionala ospatuko dau gaur Polonia eta Euskal Herria senidetzen dituan alkarteak. Poloniaren Bilboko enbaxadore Grazyna Bernatowicz izango da berton. Jaiaren ekitaldi nagusia piano kontzertua izango da. Alkarteko lehendakari Jerzy Zienkiewiczek aurkeztuko dau. Antolatzaileek agertu dabenez, alkartearen helburuetako bat da Poloniako kultura eta herrialde berrazabaltzea. Bide batez, gainera, Euskal Herria eta Poloniaren artean adiskidetasuna bultzatu gura dabe.